EPALLA
8
Igandea
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ile.
Bilbao'atazkua ... 11,25 » »
Idazki-itunmena ... 62,00 » urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 » »

Beldayen itunduba

XXIV urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.240 zenbakija

Gayak

EUZKEL-BELGUNTZAK

Bariku gabeko belguntzara ixan gintzan, eta Josu'ren artzañak dei ta dei bertaratu eban artalde ederari begiratu be bai.

Belgundarijen deyak obendirik asko itxaŕtu ixan dau, ta galbidietatik ateriaz, bai donokira bidian imiñi be.

Eŕi-guna zer dan ezagutzen eztaben askoren eretxija, okeŕeko eretxi au ixan oi-da: belgundarijen itza, izkuntza baten zuzenduba dala nai beste baten zuzenduba ixan, bardin dala.

Baña ez. Ori ezta egija. Belgundarijen itza, bene - benetako onurakoŕa ixateko, entzulen izkuntza jatoŕian zuzenduba ixan biaŕ da.

Euzkeldunon bijotzetan baŕuren sartzen diran itzak, euzkeraz oguzijak ixaten dira.

Ganera, guri, euzkeldun jatoŕoi, euzkerazko belguntzeak, ilda egozan oroimenik asko beŕbiztuten dauskuz. Bilbao'n bixi garan euzkeldunak, eŕi bakaŕ batekuak ezkara, ba, eŕi asko-asotakuak baño.

Baña, emen, Bilbao'ko uri aundijan, eŕi batekuak eta bestekuak, elexa baten batzen gara, ta belgundari batzuben zainpian jaŕi.

Euzkel-belgundarijok, abeska ageŕtuten yakuz. "Misiño-abestijok, bakotxaren eŕitxubetan abestuten ebezan berberaxek dira.

Abestijok, baŕiz, geyenok buruz ikasita daukaguz, ikastola-mutikuak edo neskatuak gintzazan aldijan ikasita euki be.

Eta umaruan ikasiriko euzkel-abesti samuŕoik, umaroko gumuta bixija dakaŕzkube; orain ogei urte, ogetamaŕ edo beŕogei urte, urlija eŕitxuban lenengo aldiz ezagutu genduzan belgundarijen abotsaren oyartzuna dakaŕzkube.

"Prai Bartel,,'en ipuin baŕegaŕijak; "Prai Jeronimo,,'ren itz negaŕtijak... eta abaŕ eta abaŕ.

Egunotan, Bilbao'ko Jon Deunen eŕtxadonan geure izkuntza maŕe ta maŕagaŕijan itz eta itz, Goikua'ren egijak irakatsi ta irakatsi yabilkuzan euzkel-belgundari aguŕgaŕijoik, euren itzaldi samuŕak eta euren abesti gozuak bide dirala, gastarora begira imiñi gaŕubez, geure beseŕi kutun maŕagaŕijetara begira.

Eta gastaroko gumuta beŕbiztubaz, bakotxaren eŕitxubetako txaunburu jaunak eta ikastola-maxuak irakatsi euskubezan misiño-abestijak baŕijen -baŕi geure espanetaratubaz, abestubak -abestu egiten doguz.

Eta abesbatz onetan, adin gustijetakuak sartzen dira. Buruko uliak zuriŕuta ta auŕpegijetako azalak tximuŕuta daukezan atso ta agura zaŕak be, euzkerazko belguntza onetan, abuak zabal be zabal dabezela umaroko abesti samuŕak joranez abestuten ikusten dira.

Beraz, eskeŕak Isusi'taŕ Augustin, Jon Deunen eŕtxadoneko txaunburu jaunari, urtaro egiten diran euzkel-belguntza oneik, Bilbao'n bixi garan euzkeldunok biar-biaŕekuak doguz. Geure gastaruaren gomutia; geure baseŕi kutun maŕien oroimena; gure euzko-mendijen usaña ta gure ixatiaren gogua diran euzkerazko belguntza oneik, ¡biaŕekuak be biaŕekuak dira...!

Jon Deunen eŕtxadoneko txaunburu aguŕgaŕijak bixitzea emon dautsan otura edeŕ oni, eutsi egin biaŕ yako, ba, eutsi. Eutsi ta sendotu, baŕa joriŕu ta edatu be. Egin biaŕ gaŕantzitsu onetan euzkeldun gustijok jardun genŕekez, euzkel-belguntzetatik yatoŕkun onurea be, uuzkeldun gustijuena da-ta.

* * *

Uŕutia abeak, autoŕkuntzeatzaz daŕai Autoŕkuntzea, jauparijak imiñija barik, Goikua'k Berak imiñija dala baŕiro be esan euskun.

Dabi igaŕlia ta bakaldun aundija be, autoŕtu-egin ei-zan, eta Goikua'z Beraz autoŕtu be.

Dabi bakaldun aundijak, oben bi egin ei-ebazan; bi bakaŕik, baña aundi-aundijak; gixon bat erail ei-eban, eta aren emazte bakaŕaz, jabetu. Oben ikaragaŕi a zala-ta, Goikua'ren deyak bein baño saŕijago Dabi'ren baŕunbe-atia jo ei-eban. Dabi bakaldunak, baña, Goikua'ren deyari, ez ei-eutsan aterik edegiten.

Goikua'k, Dabi, maŕe-maŕe eban baña, eta oben itxusi aretatik garbiŕutia gura eban. Eta garbiŕu zedijantzat, egun baten, Natan igaŕlia bidaldu eutsan.

Natan igaŕliak, Dabi bakaldunari, bere egin biaŕa betetako lekura eldu al-ixateko, ipuin bat asmau eban, eta Dabi bakaldunari edestu. Ona emen, ipuin a:

—Ain lekutako urijan — Natan'ek Dabi'ri esan eutsan—gixon bi bixi dira. Bata aberats okiŕuba da. Bestia, ostera, txiro-txirua.

Aberatsak, artaldiak-artalde dauz, abelgoŕijak-abelgoŕi, luŕak-luŕ... Zeren jabe dan be eztaki. Beste txiruak, ostera, bildots zuriŕxu bat baño ezatau, eta bildots zuriŕxu aregaz jolastuten diran semetxu kutun bi.

Egun baten, baña, jazotekua jazo zan. Aŕaturiko urira, bidazti bat eldu zan. Eta ain zuzen be, aberats okiŕubaren etxera jo eban, eta ostatuba eskatu.

Aberatsak bai emon be. Ostatuba ta aparija be emon eutsan; bildots-aragi edeŕa.

Baña au aŕigaŕija—Natan igaŕliak geŕu eban—: bidaztijari jateko emon eutsan bildotsa, txiro eŕukaŕijaren bildots bakaŕa ixan zan. Eta gaxo-gaxua, bildots barik itxi eban, eta aren semetxu kutunak, jolasgaŕi barik.

—¡Ankeŕkeri oŕek beren zigoŕa biaŕ dau!—Dabi bakaldunak oyu-egin eban—Ainbeste artalde ta abaŕen jabia dan aberats oŕek, bere bildotsai ukuturik egin barik, bat baño eztaukan txiruaren bildotsaz bidaztija janariŕu ixan dabelako, erijotzea irabazi dau, ta erail egin biaŕ da.

Natan igaŕliak, orduban, Dabi bakaldunari, olantxe erantzun ei-eutsan:

—Dabi, erailgaŕi dala diñozun aberats ori, zeu zara. Eta bildots bat ixan eta kendu ixan dautsoen txirua, beñola zuk, biaŕixan barik, bere emaztiagaz jabetutiaŕen erail zendun gixona.

Natan igaŕliaren erantzun a, Dabi obendijaren baŕunbera, buru-ziaŕ jausi oi-dan ur irakiña baxen gori jausi ei -zan. Eta egin ixan eban oben itxusi aregaz benetan damututa, Goikua'ren auŕian auzpestu ei-zan, eta garbaiz beterik zala autoŕtu.

Uŕutia abeak eredu oneikaz, autoŕkuntzearen antxiñatasuna irakatsi gura ixan euskun. Asmo ori agertuteko egokija da ixan be eredu au.

* * *

Iruaŕitzaga abea, aldijatzaz iñardu zan. Aldija amaikoŕa zala iñuan, eta usterik gitxijen danian, bakotxari yaokuna, amaŕuko zala.

Aldija geure eskubetan daguana bai -litzan, zaŕak diraneko; azkeneko ordurako autoŕtza-arazuak isten dabezanen aŕiskuba agertuteko, une batetik besterako erijotzeak gomutarazoten euskuzan.

Belgundarijaren asmua asmo zuzena zan. Erijotzea, ba, eztegubetara - ta etoŕten dan jateŕubaren antzekua ezta ixaten, iñok deŕu barik usterik gitxijen danian otoz-otuan etoŕten yakun aŕotza baño.

Aurtemin, emen Bilbao'n berton jazo zan jazokun negaŕgaŕija be, otoz -otuan agertuten yakun erijotzearen eredutzat imiñi geinke.

Suizkiluz zauriŕuba ixango zan baño une bat lenago, Maura'taŕ Joseba Mirena'ri, jazo yakanaren baŕi iñok agertu ixan ba'leutsa agertu, onenian iŕi egingo eutsan, eta zorotzat eta txotxolotzat aŕtu.

Belgundarijak, baña, noz eztakigula eskubetatik iges-egingo dauskun aldijari, gaŕantzi aundija emon eutsan. Go go-osasuna geroko isteko baño aldintsubagua zala iñuan. Belgundarija zuzen eguan. Geroko, azkeneko orduban egiteko isten dan autoŕtzea, geyenetan, egiteko geratuten da.

AGUŔA

Bijaŕ, belguntza onen azkenengo eguna ixango da. Bijaŕ aŕatsaldian, se ta erdijetan, belguntzeari azkena emoteko, eleiz-jai edeŕetarikua egingo da.

Belgundarijak, aguŕ-egingo dauskube, ta euren itza entzuten egunoro juaten ixan garalako, eskeŕak emon.

Belgundarijen aguŕa, aguŕ samuŕa ixan oi-da. Gure baseŕijetan beintzat, belguntzearen azkenengo egunian, eŕi ta eŕbeste, belgundarijen aguŕa entzuten osuan juaten ziran.

Gu be, euzkel-eŕi maŕe areŕako seme -alabak gara-ta, umaroko gomuta bixija beŕbiztuten otoŕi ixan yakuzan euzkeldun belgundarijoik egingo dauskubezan aguŕ samuŕ eta anaikoŕak entzuten juan gayakixuezan.

Bijaŕ, irakuŕle, azkenengo eguna da. Bijaŕ aguŕ-eguna da. Belgundarijak ¡Aguŕ! esango dauskube. Guk be, ¡Aguŕ! esango dautsegue.

Uribiŕarte'taŕ Ibon.

Errijetatik

MENDARO

JEL - ALDERDIAREN GURENDA. Benetan pozgaŕia da Jel-Alderdiaren gurenda, igaro dan igandean lortu zan ba gurenda aundia. Gure biotzetik irten zan oyua auxe zan: Gora Jaun-Goikua eta Lege-Zaŕa, gora Euzkadi. Naiz ta eguraldirik txaŕena izan, baseŕitaŕ zintzoak, gizon bat bezela eldu ziran euren autarkia Jel-Alderdiari amatera. Eŕiko gastediak jo ta ke ibili ziran. Bakerik edeŕean egin ziran auteskunde oŕeik eta olaxe geratu ziraden: Iruxo'taŕ Imanol'ak, 263 autarki; Lasarte eta Pikabea'k, 262; Irazusta'k, 261. Ezkeŕekuak olaxe: Anso eta Apraiz'ek, 59; Amilibia'k, 38, eta Laŕañaga'k, 37.

GOTZON ZAINDARIAREN EGUNA Gotzon zaindariaren Balera'kuak urtero bezela ospatu dute eleizkizun aundiakin. Gaurko askı det, uŕengoan geigo irakuŕle Goikoa lagun.

Kaiku.

LASARTE

AUTESKUNDEAK. — Oraingo onetan eŕiaren iritzia argi-argi azalduko zalakoan geunden. "Contrarrevolucion" taldekoen jauntxokeria luŕazpiratu zala ziur bai geunden. Baña, ¿nork usteko zuan "beste oiek" ere jauntxokeri beŕi bazekitela?

Lenengo txandan "eskubi" dalakoen jauntxokeriak autarki asko lotu zitun.

Bigaŕen txanda onetan ezkeŕekoen petralkeriak lenengo txandan baño autarki geiago lotu ditu. Oria auzo eŕiko ezkertaŕen petralkeriak, goŕi oien burugabekeriak (beste izenez ez esateagatik) autarki asko galerazi zizkiguten.

¿Nork usteko zuan ordea "libertad", "democracia" ta oŕelako izen edeŕak españetatik zintzilik darabilzkiten oiek Hitler eta Mussolini baño fasçista goak azaldu bear zitzaizkigula?

Ondo zeok: nabarmen nabarmen agertu zerate eŕiaren auŕean eta eŕiak ondo ezagutuko zaituzte.

¡Viva la libertad!, ¡viva la democracia! ojuka ibiliak ez ditugu ba Oriataŕ goŕi oiek?

Eta "libertad" eta "democracia" oiek ¿nun utzi zinduzten igandean? ¡Gezurti alenak!

Bekalekoak Lasarte'n bertan zuten autarki eman beaŕa, Goikalekoak Oria 'n. Bakalean etzan oker txikienik gertatu, guzia pake osoan igaro zan.

Goikalekoak ere zintzo asko ekin zien bere eginbeaŕari baña eguerdi aldean Oria'rako jun etoŕiak egiteko "autocaŕ" bete betea zijoala bide erdian geldiarazi ta lau kurpilak pistolaz zulatu zituan Oriataŕ "democrata" talde batek. Geroztik, jakiña, autarkidun asko gelditu zan Oria'ratzeko bilduŕez.

Ona emen aldun gai bakoitzak bildutako autarkiak:

Bekalean.—Iruxo, 239; Lasarte, 239; Pikabea, 238; Irazusta, 238; Amilibia, 151; Anso, 148; Apraiz, 148; Laŕañaga, 145.

Oria'n.—Iruxo, 204; Lasarte, 204; Pikabea, 204; Irazusta, 205; Amilibia, 224; Anso, 141; Apraiz, 141; Laŕañaga, 221.

Bekalean, lenengo txandan baño 25 autarki gutxiago izan ziran.

A-Bi.

EREÑO

Naita oraingo auteskunde-aldijan ezdogun urten garaie, auŕera ta auŕera goyaz geure abeŕtzaletasuneko bidean, aspertu-barik, eta aldi gitxi baŕu, oso -osuan uste dogu geurea izango dala garaitza, emengo jauntxu aŕo gustien ganetik.

Eztu dabiltza jakin nairik nundik eta zelan, ataraten doguzan Ereño onetan, ainbeste autarki, eurak izanik eŕi onen jaun ta jaubeak, eta ezdakuste itxuak euren ondoren dabiltzazan batzuen, biotzak be geureak dirana.

Ondo dakigu ereñotaŕok Anton Migel, biotz oneko gizona dana, eta garbija; baña bere argaitasuntxua jauntxukerija dau. Onek be beste askoren antzera ingiruetan, beronek bakaŕik izan nai dau olaŕa, beste gustiak olotzat artunda; baña aspaldion nun nai entzuten dira olaran kukurukuak eta olar zaŕaren aldean zolijaguak.

Onek baño aundijago dan Jaungoikoak egin ebar gizona bere buruen jaube izateko almenagaz, eta onek ostera oloak balitzazan erabili nai dabez Ereño'ko gizakumeak batera ta bestera, aŕtogaraun apur batzuk jaurtita, aren ordaintzat aundikijak gandik eta beste gixaxoen lepotik, eurak onurak artzeko.

Oraingoan ezta agertu emendik anaya ministrua, "bertso beŕiak" edo, uxatu dabe gure ondotik eta bape ezpaletor askoz oba eŕiko bakearentzat. Guk ezdautzagu gurari txaŕik bata ez besteari; bakaŕik eskatzen dautsagu, itxi daiskuela bakean geure jatoŕiz doguzan maitetasunak goralduten.

Jaungoikoak egin genduzan euzkotar eta Euzkadi dogu geure Abeŕija, eta zuek, onura txatxaŕ batzukaitik areriokin batunda gure eriotza nai dozue. Eta ori ezdago ondo egiña, naita naiez zeuek be geure anayak zarelako odolez beintzat.

Entzun dogu, igandian jan torperen bat daukazuela Gaitan'en jaŕaleok, aren entieŕoa ospatuteko edo, eta oribe, ezta ondo egiña, zegaitik, zeuek izan ezik ez dogu iñor iñon ikusi deŕotarik zelebraten. Zuek ostera irebasten dozuenian bete urdaiak eta galtzen dozuenean be bete urdalak. Urdala da ikusten dogunez zuen aŕdura nagosija ori ondo asetuta euki ezkero, orkonpon beste gustia; baña ezta oŕetarako bakaŕik jayo gizona, oŕetarako aberiak jayo ziran bakaŕik.

Mendibil.

METXIKA (EŔIGOITIA)

Lanaren ostian poza. Bai irakuŕle, eztago lan bigunik, gustijak ixan dira alegiña egin biaŕekuak, baña atsekabe -ondoren beti agertzen da nundik edo andik poztasuna.

Igandian zuŕ ibili ziran Eŕigoiti onetako abeŕtzaliak, ibili biaŕa, be, ba -euken eta. Iru diputari ziran atera biaŕ ziranak eta ezin lorik egin. Goxian-goiz eguraldi txaŕak ikeratu gabe urten gintzan etxetik, otzari, be, geyago egiteko ustez, bijotzeko berotasunaz. Eŕigoiti onetan ondo erantzun yako abeŕijaren deyari, lendik, be goruntz egin dogu ta geure arerijo gustijak atzez-atzezka asi dira. Makaŕenak ixan garala esan geinke, amabost egunian oŕen beste irabazi dogunian Amaya aurkiŕu-aŕte eztago bakerik.

Jaungua'k bialdu euskun Sabin euzko-eŕija gaizkatzeko ta orduz gero igali edeŕak emon dauz. Euzko-Alderdijaren garaitzea jakin zanian poztasunez begijak negaŕtu yakuzan. Umetxu txikeŕenak, be, erakutsi eben euren poztasuna. Txanponak eztabe balijo ixan orainguan.

Abeŕtzale gustijok gertu egon gaŕezan laster etoŕiko diran auteskundietan, be, zintzo jokatzeko. Udal-etxietarako auteskundiak etoŕiko diranian, be, abeŕtzale gustijok garale urten biaŕ gara.

Zorijonak Metxika eta Eŕigoitia-aldeko abeŕtzale gustijai; asi emakumiengan eta gastetxubak aŕte. ¡Gora zubek!

Abeŕtzale gaste bat.

Euskera
Euskelizaleen Orratza
Saltzalientzat
Lko. BAT
Saneurri berezia'
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Noiz ikusiko dot?

Noiz ikusiko dot
artaldi edeŕa?
Gustijak batuta,
a zelako poza!

Txorija ezta alai
umiak galduta;
itunago ama
semiak juanda.

Udea elduta
txorija abeslari;
neguba danian
bata, be, urduri.

Onak igaro-eta
oraintxe bai baltza.
Iruntzi zagijan
oŕ dator aŕotza!

Noiz ikusiko dot
artalde edeŕa?
Euzkotaŕ gustijak
baketsu batuta?

Euzkadi goyetan
ba'lego udea!
Neguba juanik
betoŕ pozaldia.

Abenderi.

EUZKOTAR UMIENTZAT

Jagoba nere laguna, sartu zan lengo egunean ogitegi edo panaderija batean, ogi txiki bat erosteko asmoetan, andik igaro zanean eta ogi beroaren usai edeŕa aitu, gosea bezela nabaitu zuan ta.

Ganbioen zai zegoan bitartean, sei edo zazpi urtedun mutiltxo bat sartu zan, txiro baña garbi jantzia.

—Amak esan dit ogi bat emateko—esan zion ogitegiko andreari.

Andreak, apalean eŕeskadan zeuden lau librako ogietatik edeŕen bat artu eta mutiltxoari besoetan ipiñi zion.

Jagoba nere lagunak mutiltxoari begiraturik "auxe da arpegi tristia daukana ume onek", esan zuan berekiko.

Alaxen zan izan ere, mutiltxoaren begiak negaŕ egin beŕiak ziruditen, eta bere arpegiak zan baño ere txikiagoa eta tristiagoa lauko ogi aundi borobiien ondoan. Bera jasotzeko aña indaŕ ozta-ozta zuan mutiltxoak.

—Nun dezu ba dirua? galdetu zion ogikiñak umeari.

Mutiltxoaren begiak len baño ere geyago itundu ziran.

"Dirurik ez det "erantzun zion ogi aundia maiteki bere bulaŕean beso biakaz estuturik; amak esan dit bera etoŕiko dala biaŕ zeurekin itz egitera.

—Tira ba, ume, esan zion ogikin onak—eraman ba amari ogia.

—Eskeŕik asko, esan zion mutiltxo gizajuak.

Jagoba nere lagunak artu zituan bere ganbioak, sartu zituan bere patrikadan eta erteteko bira egin zuanean, bere atzean geldi-geldirik zegoan mutiltxoa ikusi zuan. Begiratu egin zion, onezkero uŕuti izan beaŕ zualakoan zan ta. "Zertan ago ba oŕ?, esan zion ogikiñak, ez al diat ogi ona eman?

—Bai, andrea, bai orixe, edeŕ askoa da.

—Juan adi ba axkaŕ amari eramatera, bestela kalean jolascan ibili aizela usteko dik, ogia basteŕen batean lagata, eta aseŕatu egingo zak.

Umeak ez zirudian ezer entzun zuanik. Zer edo zerk betetzen zion burua eta zerbait entzuten zegoala esan zeikean.

Ogikiñak, juan bere ondoraño eta eskuakaz arpegia igortziaz "Mutil, zertan ago emen etxera juan gabe? esan zion.

—Andrea, esan zion mutiltxoak—zein ari da emen kantari?

—Emen ez dek ari iñor kantari—erantzun zion ogikiñak.

—Bai, esan zion mutiltxoak. Ara, entzun ezazu ia, kri, kri, kri, kri.

Ogikiñak eta Jagoba nere adizkidiak zurtu zituzten belaŕiak eta labalde, aldetik zetoŕen kirkiŕ aŕen kanta entzun zuten. Ogitegietan eta labaldeetan batez ere, kirkiŕ asko izaten baita!

"Txoritxoren bat al da, ala ogiak egiten aldu soñu ori labean eŕetzean sagaŕak egin oi duten bezela?

—Ixilik ago, tontolapiko lapiko ori, esan zion ogikiñak; kirkir aŕen kanta dek ori, kirkiŕak dituk oyek. Labe sua oraintxen pixtu ditek eta sua ikustean poztu egin oi dituk nonbait eta kantatzen asten dituk.

ARITOKIETA.

(Daŕaiko.)

AUTESKUNDE-OSTIAK

Zori oneko auteskundiak juan yakuzan; zaratea, alkaŕ-ikusi eziña, urkorarentzako samindasuna. Naste-boŕaste loyak baño eztoguz ikusi. Bururik gayen daukela erakutsi biaŕ eben izpaŕingijak, be, deabrubak jota legez egozan. Iñoiz alkaŕturik bixi-ixan ba-gara euzkotaŕok, orainguan banandu gara. Baseŕira guazen. Mendi-eŕtzian datza geure etxe zurija. Anaŕasunak eta beskiak lekurik euki ba-dau, basetxe oŕetan euki eban. Zugatz batzuk, soluak eta latxiñak. Etxe-onduan goldia, boŕoŕatza, alpeŕa; labea; otea. Basetxe oŕetan diraue geure euzko-sendijak.

¿Zenbat urte ete-dira sendi ori oŕa etoŕi zanetik? Asko! Baña zori txaŕeko auteskunde batzuk gora-bera, basetxe zuri oŕetako bakia ta anaŕasuna laskiŕu dira. Ugazabaren gogo txatxaŕak negaŕ-eragin dautse. Etxalde edeareik itxi biaŕez euren burubak ikusi dabez. ¿Noiz baŕiro ikusi al-ixango dogu lengo bakia? Ementxe daukogu auteskundietan loŕtu dana. Eskumaŕen ixena abuan darabilenak jaritxi dabez igali ta alorta oŕeik.

Oŕ Euba-inguruko basetxe baten gangaŕean ikuŕin goŕija ikusijak gara. Noren eskubak eskegi ete-eben? Euzko-basetxietan negaŕ-ayenak entzun dira; goŕotuak zabalik erabili dauz bere eguak. Luŕera ixuri diran urak eztoguz sekulan ontziratuko. ¡Aldun edo diputari bat, be, atera ezegiteko gero!

Baña basetxiak itxiŕa, urijetaruntz gatoŕzan. Ola-gixonak daukezan aŕiskubak. Egunero zirika ibilten yakez ezkeŕ-goŕijak. Katolikuak ezer eztagijelako goŕijak baño eztabela maŕe langileŕik. Eurekandik itxadon daikiela zorijonak ¡Beredin langile jausi dira goŕijen eskubetan! Eta geure eskumaŕok lan negaŕgaŕijak egin dabez.

Bazkun kistaŕetan alkaŕtuta dagozan langiliai zemai-bidez laŕijak etabost ikusi-eragin dautsez. Olaetatik jaurti eroiezan; autaŕki bat bide zalaŕik edozer gauza egijen. ¿Langile oŕeŕatik askotxu ez ete-dira ezkeŕen aldera juan? Zuzutzaŕik eztarabilen eskumaŕakaz alkaŕtu baño lenago goŕijekaŕa ez ete-dira zuzendu?

Baseŕitaŕak, langiliak, aŕantzaliak eta gastedijak; gustijak ikusi dabezelakuak diran emeko eskumaŕak. ¡Amaikatxu jausi dira ezkeŕ-alrera! Emendaukoguz eskumaŕ-ixenez loŕtu diran alortak! Diputaŕirik ez, baña goŕotuzabaldu bai.

Izpaŕingi oŕein letra goŕijak, odola darijoe. Bai abeŕtzalien odola! Goxoro jazan biaŕ ixaten gebazan min gaiztoen zirikadeak; emakume-antzeko gixonaen doloŕkerijak. ¡Damutuko al dira!

Aŕokerija baña ezta gauzaŕik onena. Katoliku-ixena kendu dauskubenak, masoitzat erabili gaŕubezanak, oŕeik ixilik dagoz. Gotzain aguŕgaŕijaren itzak, be, ixilpian gorde dabez.

Auteskunde onetan loŕtu diran igalijak zelakuak diran, ile batzuk baŕu jakingo dogu. Kistaŕtasuna otziŕuz doiala-ta gabiltz, baña eduŕa baño otzago geratuko dalakuan gagoz. Garaiz bidera uŕteten ezpa-dira zeregin ori daukenak. Ainbat samintasun gitxijago ixango ziran auteskunde-auŕetik izki batzuk agertu baziran.

Goikua'k garabiltz eta Aren eskubetan itxi daruagu geure eŕi onen zoriona. Geurez egin daigun al-doguna; bilduŕ-barik, iñoren ikera-barik. Zuzentasunezko bidietan dabilenak eztauko ezeren keskaŕik. Ludiko eŕijak egin edo irazan ebazanak, Ber-berak gaizkatuko dauz.

BERMEO'TIK

AUTESKUNDIAK. — Otsaia'ren 16 'gko. garaipena ikusi ondoren emeko españaŕ ezkeŕtaŕak (?) itxaropen andijak ixan dabez. Baño euron itxaropen gustijak oxiñeratu yakez.

Euzko-Alderdijak len baño be auteskunde obiagua egin dau.

Abeŕtzaletasuna erain egin biaŕ dogu lan eta onuakaz: bestela gastedi ta ondorenguak egaz egingo deuskube. Zuŕ ibili gaŕezan ba.

Itxasotik.—Paparduak be utz emon deusku. Beintzat gure aŕantzale kementsubak itxasoratu barik dagoz aspaldiz.

"Karmengo Ama" ixontzijak ekaŕi eben atzo bokaŕta apuŕ bat. Dana ezeŕ ez.

ERIJOTZA. — Gipuzkoa'ko Pasai'tik il-zorijan Beŕmeo'ratu dabeOŕmaetxea 'taŕ Deunoro aŕantzale gastia. Gaxo au lasteŕian il da iłobiratu dabe. Bere sendi atsekabetubak aŕtu begi nere tamal agura. Batez, be bere loba Oŕmaetxea'taŕ Pantzeska gure Gastedija'ko pelotari ospatsubak. (G. B.).

BASEŔITIK.—Gure luŕ-langiłak be eurija dala zijo eztaukoe aro onik euren arloctan asteko lanian. Ia epaia onek itxiŕen deutsen bakian euren arazuetan.

Atal onen zuzendarijari: Iru lau izpaŕ eta uaŕ bat daukataz egunkari onetara bialduta eta ondikaŕen euren argitasunik eztot ikusi. Galdu ete?

Uŕkidi.

ELGOIBAR

Igaro dira bigaŕen birako auteskundiak bakaketzu. Eskaŕak, bai emengo abertzaliari, eruanpenari, eibartar gaste goŕi talde berebil baten goizian goizago eldu ziran naspilerako bidia ipiniagaitik aintzakotzaz eziran artu eta pozik egon leikez oŕela garo zakuenian. Baña ezkertaŕ oŕek "democracia" izan ori kendu ta "sectarismo" orde ezaŕi dabe.

Goraltzekua da benetan, abeŕtzaliak egin duten lan edeŕa batez ere. Emakume abeŕtzaliak, orainguan ere garaie atera gera, abertzaliak otsaleren 16'an bezela bete zuten beren autarki arazua beste deitzen zioten batzuk ere erantzun zuten. Eskaŕak berari gutxi ziran baña... igezi zan iłan 16'an 600 autaŕki bote eduki zituzten erdiak ezuten bota igandian, baña beren artian bai dira "España Roja" alde bota dutenak Calvo'ri poza ematiagaitik. Tamalez orek idaŕa emanda laister izango dogu onetan komunismoau. ¿Guk baño geiago ez ote dute ba berak galduko?

Onek oŕela dirala eup... eup... eup... Gora Euzkadi.

ABERTZALE ZINTZO, ENTZUN.—Bai dakizu, auteskunde oneitan bear zan baño geiago gastatzeko bidia egon dala, eta denon biaŕa da berak ordaintzeko zerbait dirukin erantzutia. An dezu ba batzokian alako ingitxo bat zerbait naz eŕeskada artan azaldu zaitezan. Erantzun deigun ba gustiok zintzo gure Ama Abeŕi bakaŕari.

Aixerixa.

SEGURA

AUTESKUNDEAK.—Igandean emen ere auteskunde edo botazioak izan ditugu, abertzaleok 337 autarki edo boto eta ezkeŕak 9 autarki atereaz. Guk, iłaren amaseian baño 65 autarki geiago izan ditugu, batzuek iłaren amaseian beartuta derechatara eman zutenak, Ceda'ko batzuek eta, goŕotorik gabe zintzo jokatu nai zuten, katoliko batzuenak.

Baña badira beste 200, iłaren 16'an derecha'tara eman zutenak, eman gabe gelditu ziranak orainguak. Batzuek goŕotoz eta beste batzuek goŕoto dauen agindua betetze aren, bada etxe -etxe ibili ziran ezertara ez mogitzeko agintzen. Guzi au, Goimaitasunaren indaŕez egin dutelakoan egongo dira bigar edo etzi goŕotorik ez dala beti eta guzien gain katolikoen batasuna bear dutela esateko, baña askotxo begiak zabaldu erazi zaizkie, gauza negargaŕi auek ikusteko.

Ikuŕin goŕiakin "komunista" talde bat ere izan genduen, baña abertzaletalde aunditxoa ikusi zuten nunbaitik eta ezer egin gabe alde egin zuten. Ontan bukatu zan emengo auteskundea. Eskeŕik beroenak ain zintzo jokatu zuten guziei eta besteai... barkatu zer egin duten ez dakite-ta.

JAIOTZA.—Zabaleta'taŕ Markelin'en emazte Oyarbide'taŕ Estefania'k semea izan du, zorionak.

ZIÑEGOTZIAK.—Gure iru ziñegotzi edo kontzejalak atzera udal edo Ayuntamentuko len lekuetara sartu dira.

Otaŕa

MAÑARIA

JAUNGOIKUAK LAGUNDU... Igandeko auteskundiak dirala bide Euzko-Alderdi Jeltzaliak sekuleko gurenda andija loŕtu ixan daulako, pozberik gagoz danok. Egun oŕetan euzkotaŕ zintzuen autaŕkijak, Bizkaya eta Gipuzkoa'n saspi aldun, diputatarateko zorija ixan eben. Baŕitsu askoren esamesak gora-bera; oŕa zeko gurendia!

Beraz, geure abeŕijaren eskubidiak aldeztuteko "Jaungoikua eta Lagi-Zaŕa" elburutzat daukoen bederatzi aldizintzo-zintzo ixango doguz...

AGUŔTU.—Larunbatez ta igandeko emeko abeŕtzaliok atsegiñez agurgenduzan Agiŕe'taŕ Joseba Andoni aldun goralgaŕija, "Lauaxeta" idazle agigija ta Solano'taŕ Karla abeŕkide zintzua.

JUAN-ETOŔIJAK. — Bilbao'ra juan ziran Amantegi'taŕ Lon eta Untzaga 'taŕ Todor aberkidiak.

—Ereño'tik etoŕi zan Elordieta'ta Miren andera.

—Bilbao'tik etoŕiŕa, igandez egon ziran emen, Usaola'taŕ Kepa, Goŕitxo 'taŕ Joseba ta Bilbao'ko beste abeŕkide batzuk. Oneik, igandez emen ikusi eban zan gauzak dirala-ta, zer kontaurik asko eukiko da-be...

—Beŕiz'tik etoŕi zan Ariznabarreta 'taŕ Peli abeŕkidia.

JAYOTEGUNA OSPATU.—Subiñaga 'taŕ Terese emakume begikuak, bere jayotegunaren urteuŕena, lengo igandez ospatu eban. Ori zala-ta, Subiñaga andereñuak, egun oŕetako iłuntzian bere lagunari azkari gozo-gozua opatu du euskun.

Eskeŕik asko ta zorijonak.

EZKONTZAK?—Ortuoste'taŕ Justa "Ageŕe,,'ko mutiła, Barakaldo'ko neskatiła bategaz ezkontzen dala, diote.

Baña, beste sei edo zortzi neska-mutiŕ be, dagoniłako Andra-Mari-jayabadiak iragaŕi orduko ezkonduko dira bi be, ba-diñue...

Oŕaŕik oŕek gustijok egijak ba-diŕa ¡a zelako eztegu usañak...!

Mañariko.

Irakurri EUZKADI